

1.- MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

- ⑩ Euskal Herrian bizi diren bezeroei salduko dizkiegu gure produktuak, bertako produktuak direnez bertako jendeari saldu behar baitzaio.
- ⑩ Teknologia erabiltzen dakien jendea, hau da, mugikorra duen jendea eta aplikazioak behar bezala erabiltzen dakitenak. Honen barruan batez ere gazteak eta jende heldua sartzen da, hau da, adinduak kanpoan gelditzen direla esan dezakegu, IKTn oso adituak ez badira behintzat.
- ⑩ Osasuntsu jaten dutenak, bertako produktuak erabiltzeaz gain, produktu osasuntsuak eta naturalak direlako gure bereizgarri nagusia.
- ⑩ Bertako produktuak eta aberria maite dutenak. Gure produktuak bertakoak dira, hau da, gure kasuan Euskal Herrikoa edo ingurukoa, ondorioz, bertako produktuak gustuko dituzten bezeroak izango dira gure erosle nagusiak.
- ⑩ Begetarianoak eta beganoak ere gure dendan jakiak eskuratzeko aukera izango dute gure produktuak haien beharretara moldatuko baitira.
- ⑩ Gure produktuak saltoki handiek eskaintzen dituztenarekin alderatuta nahiko garestiak direnez (kalitatearen mailan), gure bezeroek gutxienerako aberastasun bat eduki behar izango dute.

- ⑩ Inguruko ekonomia garrantzitsua dela iruditzen zaien bezeroak, hau da, bertako abeltzaintza, arrantza eta nekazaritzari garrantzia ematen dietenak eta ekonomia mota horri bultzadatxo txiki bat behintzat eman nahi dietenak.
- ⑩ Erosketak egiteko denbora ez duten pertsoneri edo erosketak egitea gustatzen ez zaieneri ongi etorriko zaie.



**Goi-mailako
elikagaiak**
Alimentos de
calidad superior



**EUSKAL
BASERRI**